

AUZOLANA ETA HERRIGINTZAREN INGURUKO BEGIRADA EKONOMIKOA

UEU, Eibar, 20011/07/12-13

Yolanda Jubeto Ruiz

1. Zergatik ez digute ekonomia fakultatetan auzolanez hitz egiten?
2. Zein dira jarduera ekonomikoaren eragile nagusiak, ekonomia ortodoxoen arabera?
3. Zein da ikuspegi feministak azterketa ekonomikoari egiten dion ekarpena?
4. Zer da ongizatea modernitate kapitalista eta patriarkalaren ikuskeran?
5. Ba al da posible auzolana gaur egungo egitura kapitalistan eta patriarkalean?

1.- Zergatik ez digute ekonomia fakultatetan auzolanez hitz egiten?

Auzolana **komunitateko** lana da. Wikipedia *entziklopedia askean* bilatzen badugu bere definizioa, hauxe topatzen dugu beste esaldien artean: **Auzolana** auzotar, herritar, lagun eta bizikideen arteko zerbitzuak eta zereginak definitzeko erabiltzen den esamoldea da. Horrez gain, Euskal Herriko historian oso uztartua izan den ekimen multzoa da. Hasiera batean, **auzokoen artean** egindako lanak (batik bat herriko eta basoetako toki **komunetan**) adierazteko erabili ohi zen. Gaur egun **lankidetzaren** sinonimo bezala erabiltzen da.

Bere ezaugarrien artean, bada bat oso lotura estua duena ekonomiarekin, "auzolanaren helburua **auzotarren dohaineko lanaren bidez denontzako onuragarria** den zeozer burutzea edo gauzatzea da." Hau da "dohaineko lanez" osaturiko jarduerak dira auzolanari forma eta edukia ematen diotenak. Ekonomia ortodoxoan, aldiz "dohainekoa" dena ez da jarduera ekonomikotzat hartzen, beraz, ekonomiatik kanpo geratuko ziren jarduerak dira.

Sailkapen hori emakumeoi oso ezaguna egiten zaigu. Emakumeek egindako lan andana, merkatutik kanpo egin dutenez, eta "dohainik" ere burutu dutenez, ekonomiatik at garatu dira Ekonomia diziplina eratu zenean XVIII-XIX. mendeetan zehar.

Baina ekonomia, zer da? Ekonomiaren kontzeptuaren sustraietara jotzen badugu, bere jatorrian *Oekonomia* dago, hau da, antzinako Grezian

erabiltzen zen kontzeptua. Eta zera esan nahi zuen: “*Oeconomy, oro har, familia baten beharrak asetzeko artea da, dirua xahutu gabe eta zuhertasunez jokatzuz. Familia batean oekonomia dena, estatuan ekonomi politikoa da*” (Steuart, 1767).

James Steuart-ek (1713-1780) esaldi horiek idatzi zituenean Ingalaterran “nekazaritza iraultza” isila eta “industria iraultza” arrakastatsua garatzen ari ziren. Eraldaketa-prozesu horren ikertzaile ezagunetarikoa Adam Smith izan zen, Steuart-en garaikidea (gazteagoa zena, hala ere). Smith bizi izan zen garaia aztertzen saiatu zen eta, esan dugunez, Ingalaterran izugarritzko eraldaketa ekonomiko, politiko eta sozialen azterketa hori “Nazioen Aberastasuna” liburu ospetsuan deskribatzen saiatu zen. Aldaketa horien artean, eremu publiko eta pribatuaren definizio berriak eratzen ari ziren, non bereizten ziren, alde batetik, **merkatu ekonomiaren merkataritza mundua**, eta bestetik, **familiaren etxeko moralitatea**. Horrekin batera, Estatuak ekonomian jokatu behar zuen paperaz ere mintzatu zen eta *Laissez faire* teoriaren aldekoa agertu zen. Estatuak joko arauak ezarri behar zituen baina ez zen ekonomiaren protagonista izan behar.

Trantsizio horrek, beraz, lotura zuzena izan zuen Industria iraultzarekin, eta garai horretan **industria eta merkatua** izan ziren ekonomiaren jarduera legitimo bakarrak. Etxean egiten ziren eginkizun ekonomikoak eta bertan emakumeek jorratzen zituzten lanak guztiz baztertuta eta ezkutuan geratu ziren, eta baita komunitatean eta komunitatearen onurako egiten zirenak ere, pentsamendu dikotomikoa zabalduz.

Halaber, emakumeen parte-hartzea merkatuan eta jarduera industrialean ikusezina bihurtu zituen, nahiz eta emakume askok parte hartu iraultza industrialean, Engels-ek “Ingalaterrako langile-klasearen egoera” liburuan adierazi zuen bezala¹.

Merkataritza harremanak, beraz, nagusitasun osoa hartu zuten sistema kapitalista azaltzerakoan, eta horren motorra norbanakoaren egoismo edo norberekeria izango zen. Pertsonen, edo hobe esanda, gizonezkoen ezaugarri hori izango baitzen gizarte mailan onurak ekarriko zituena (muga batzuk onartuz gero). Smith-en iritziz, pertsona bakoitzak bere interesen

¹ Bertan Lord Ashely-k *Komunen Ganbaran* emandako diskurtso batean esan zuena kontatzen du, hau da, 1839an industrian lan egiten zuten 419.560 langileetatik, 242.292 emakumezkoak zirela, hau da, erdia baino gehiago”. Pasarte hau, Smith hil ondoren idatzi eta gertatu zen arren, seguruenik aurretik ere emakume txiroek lantegietan lan egin behar izan zuten.

aldeko apustua eginez gero, gizarte osoa garaile aterako zen. Eta ez zen bakarra izan, aurretik filosofo utilitaristak Jeremy Bentham-ek ere egoismo edo norberekeria unibertuala zorientasunaren motortzat jo zuen, eta zorientasun hori negozioen edo tratuen norbanakoaren jardueraren ondorioz sorturiko oparotasuna edo aberastasunari esker lortuko genuke.

Illo hori jarraituz, badaude bi ideia nagusi, besteak beste, azken bi mendeetako ekonomista ospetsuenek sakondu dituztenak: *indibidualismo metodologikoa* da bata, hau da, gizabanakoa da eragile nagusia ekonomian eta beren ekimenak dira aberastasunaren iturburu nagusia eta bestetik, *portaera arrazionala*, hau da, bakoitzak bere interesen alde jokatuz, merkatuan parte hartzen duten guztiak garaile aterako dira.

Hortaz, beste baldintzen artean, Merkatuan parte hartu behar da eragile ekonomikoa izateko (kontsumitzaile edo ekoizle, langile edo kapitalista,...) eta baita horren fruituak eskuratzeko ere (errenta, ondasunak, zerbitzuak, etekin ekonomikoak,...).

Eta merkatuan parte hartzeko oinarritzko funtsezko baldintza “**jabetza eskubideak**” ondo zehaztuta egotea da. Hau da, pertsona bakoitzak jakin behar du norena den salerosketan parte hartuko duten ondasunak edo ondareak. Eta hor sartzen da “**komunala**”ren hitzaren izaera marjinala ekonomia ortodoxoan. Ekonomian gauzen izaera “naturala” ez da komunala izatea, kontrakoa baizik. Ahal den guztia pribatizatu egin behar da, eta “baliabide ekonomikoa” bihurtu, bai lurra, bai basoa bai gure lan indarra,... den dena jabe bat izan behar du, eta horrek salerosteko gaitasuna erakutsi behar du.

Horregatik auzolan ez dago hiztegi horretan sartuta. Merkatua nagusi den ekonomia sisteman, “autoerregulatu” dena, ez du “lehia *desleialarik* nahi,..ez sektore publikorik ez sektore komunitariorik ez dute leku handirik gizartea egituratzeko sistema horretan.

Adibide garbiena, etxeko lanak eta zaintza-lanen izaera ekonomikoari buruzko eztabaidan topatzen dugu.

2. Zein dira jarduera ekonomikoaren eragile nagusiak, ekonomia ortodoxoaren arabera?

Esan dugunez, XVIII. mendearen amaieran, ekonomia aberastasunaren sorreraren ikerketa gisa hasi zen eratzen, eta merkataritza-produkzio

kapitalistan oinarrituz joan zen. Aldi berean, gizarteko oinarrizko instituzioak, bereziki familia, oinarrizko izate gisatzat hartua izan bazen ere, azterketa ekonomikotik kanpo utzi zuten. Jarduera ekonomikoaren ikuspegi horretatik abiatuta, “**gizon ekonomikoa**”(*homo economicus*) izeneko agente ekonomiko nagusia eratu eta definitu zen.

Izaki hori maskulinitasunaren estereotipoa da, eta, deskribapenaren arabera, gizon autonomoa da, egoista merkatuan eta altruista etxean. Gainera, erabakiak modu arrazionalen hartzen ditu, bere interesei eman ez lehentasuna modu jarraituan, eta alde aurretik definitutako lehentasun eta gustuak ditu, denboran zehar egonkorrak direnak. Ekintzaren bat egiten duenean, bere erabilera pertsonala maximizatzen du, eta, normalean, bere testuinguru sozialetik isolatuta dago.

Gizakien portaera ekonomikoaren karikatura horrek ez du pertsonen arteko interdependentzia kontuan hartzen, eta ez ditu esanguratsutzat hartzen etxeko zainketa, produkzio eta kudeaketa lanak, ezta komunitatean egiten diren zereginak ere, garapen pertsonal eta kolektiborako funtsezkoak diren arren. Teoria horien arabera, emakumeak senarrekiko menpetasun ekonomikoa duten emazteak eta amak dira. Beraz, etxeko lanetan espezializatutako gizakitzat hartzen dira, lan horiek egiterakoan garatzen diren gaitasunak aztertu gabe. Ondorioz, esan daiteke merkatuan ez direla hain produktiboak, eta pertsonen zainketa emakumeek soilik egin beharreko lan “natural” gisa hartzen da. Hain zuzen ere, lan hori emakumeek egin behar dute, baina lanak duen garrantzia behar bezala baloratua izan gabe.

Labur bilduz, eta apur bat sinplifikatuz, *homo economicus* horrek bi izaera izango ditu. Alde batetik, **enpresaburua** izango da jarduera ekonomikaren eragile nagusia, bereziki XIX mendetik aurrera, lehia perfektuaren ezaugarriak osatzen direnean. Ekonomia lehian oinarritzen baita, ez lankidetzan. Azken finean, enpresaburua izango da aberastasunaren sortzaile, berrikuntzen motorra eta arriskatzen duena. Hortaz, politika publikoak ekonomia indartu nahi duenean bere zeregin eta jarduerak erraztea izan behar du ardatz nagusitzat.

Eta beste aldetik, **kontsumitzailea** eta bereziki “kontsumitzailearen subiranotasuna”, izango da ekoizpenaren ildoak ezartzen omen dituen, bere lehentasunak funtsezkoak baitira.

Aldiz, etxeko lanak, zaintza lanak, komunitate lanak,...ez badira merkatutik pasatzen ez dira jarduera ekonomikoak, eta beraz, ekonomiaren arretatik kanpo geratuko dira. Adibide garbiena, Barne Produktuarena izanda.

3. Zer ekarpena egiten dio ikuspegi feministak azterketa ekonomikoari?

Ekonomia feministaren (EF) iritziz ekonomiaren funtsezko helburua bizitzaren iraunkortasuna bermatuko duten baldintza egokiak aztertzea da, komunitate jakin batean bizi diren emakume eta gizonen bizi kalitatearen aldeko apustu argia eginez. Erronka horrek aldaketa erradikala dakar azterketa ekonomikoan, eta eraldatu egiten du diziplina hori.

EFren osaketa teorikoaren oinarriak **generoaren kategoriaren** botere analitikotik abiatzen dira. Horrek berariaz egiten dio erreferentzia maskulinitasunaren eta femeninitasunaren eraketa sozialari, gizartean ditugun itxaropenak eta aukeraz zein jokatu beharreko rola baldintzatzen dituztenak. Era berean, emakumeek eta gizonek bizi dituzten egoerak lotzen ditu, harreman-kontzeptu bat da eta. Ondorioz, ezin da emakumeen egoera ulertu eta aldatu, gizonena ere aldatu gabe. Ikuspegi horri jarraituz, emakume eta gizonen arteko desberdintasunak sorrarazten dituzten prozesu eta instituzio sozialak aztertu daitezke, bai eta emakumeei zelan kentzen zaizkien beraien lanaren etekinak, genero bien gaitasun eta portaeraren balorazio asimetrikoa, eta horrela sortzen diren baliabide eta botereetarako sarbideak ere.

Beraz, azterketa ekonomiko hau gure errealitatean oinarritzen da, eta, bertan, gizarte hierarkizatuak agertzen zaizkigu, non balore, estereotipo eta tradizio multzo bat ikusten baita. Prozesu honetan, emakumeek mendez mende egin izan dituzten jardueren desbalorizazio sozialak eragin argia dauka. Hori horrela, gizartearen egituraketan oinarritzkoak diren etxeko lanak, zainketa lanak eta komunitaterako lanak baztertu egin dira, ez-ekonomikotzat hartuak izan direlarik. Ondorioz, azterketa ekonomikotik ere baztertu izan dira. Aldi berean, jarduera ekonomikoaren eduki eta mugen pertzepzioak nabarmen baldintzatzen ditu politika publikoak; izan ere, esfera horretatik sistematikoki baztertu diren jarduerak ez dira kontuan hartuak izan esku-hartze publikoa planifikatzerakoan, kasu batzuetan komunitatearen bizitza ekonomikoaren funtsezko euskarriak diren arren.

Testuinguru horretan, feminismoak zientzia ekonomikoari egin dizkion ekarpen nagusiek diote maila teorikoan ezarritako muga faltsuak gainditu egin behar direla. Era berean, ekonomia feministak eskaintzen duen ikuspegiaren irekitasunari esker, merkatuko harremanei ematen zaien zentraltasuna gainditu egin daiteke, familian eta komunitatean sortzen diren giza harreman produktiboak erdigunean kokatuz, antolakuntza sozialaren eta pertsonen bizi-kalitatearen ardatz garrantzitsuak diren aldetik.

Subertsio horren ondorio politikoak izugarriak dira, gainditu egiten baita merkataritza-portaeraren ereduak. Bertan esaten da, era berean, eraldaketa horrek aldaketa sakonak ekarri behar dituela lan produktiboaren antolakuntza sozialean, bizitzaren iraunkortasuna eta kalitatea izan daitezen ekonomiaren azken helburuak. Ondorioz, horrek irabazi ekonomikoaren bilaketa gainditzeko du, jarduera ekonomikoaren helburu nagusi gisa. Alabaina, ideia hori oso zabaldua dago gure gizarteetan, eta zaila da harreman justu, orekatu eta solidarioagoak izango dituen mundu bat imajinatzea.

4. Zer da ongizatea modernitate kapitalista eta patriarkalaren ikuskeran?

Industria iraultza modernitatearen sinboloa izan da azken mendeetan, oparotasun materialaren sinonimoa eta hirien zabalkundearen eredu. Kontsumo gizartearen hiriak eta merkatal guneak dira “paradisu” honen adierazle nagusiak, baina zertan oinarritzen da gizarte-mota hau?

Ongizatea...zer da gure sistema ereduan?

«Ongizate» terminoa osatu da baliabide naturalen harrapaketa, munduko zorigabekoen esklabotza, emakumeen baliogabetzea, haurren erabilera onartezinean —produktutzat eta eskulan merketzat— eta gerra-indarraren erabilera zentzugabe oinarrituz.

Marilyn Waring

Esan dugunez, gure garapenaren kontzeptuak oso lotura estua du Mendebaldean XVIII. mendearen bukaeran izan zen industria-iraultzaren

emaitzekin. Iraultza horren jatorria XV. mendearen bukaeraz geroztik Ameriketako herrien **kolonizatze-prozesuetan** gertatu zen kapital-metaketan dago². Prozesu horiek, gero, munduko gainerako aldeetara zabaldu ziren pixkanaka.

Diru-kopuru handia edukitzeak, lurren pribatizazioak (herri-lurrak desagertu ziren), eta lur horietatik biztanle gehienak bota izanak –orduz geroztik lan-indarra baino izango ez zutelarik–, industria kapitalistan erabilitako aurrerapen teknologikoekin batera, beste faktore batzuen artean, inoiz ez bezalako ekonomia-hazkundera ekarri zuten. Industria-ekoizpenaren gehikuntza horrek eta ondoriozko kapital-metaketek, esplotazioan eta lanen desbalorizazioan oinarriturik, aldaketa sakonak eragin zituzten bai Mendebaldeko gizarteetan bai kolonietan, baina era desberdinetan. Testuinguru horretan sortu zen pixkanaka aurrerakuntzaren kontzeptua, eta Mendebaldeko **modernitatearen** bereizgarri bilakatu zen.

Mende horietan zehar gizarteetan gertaturiko aldaketek bide eman zuten mito bat sortzeko, gizakiek **natura erabat mendera zezaketela** zioena. Hala, natura ekoizpenaren beste faktore bat gehiago balitz bezala hartu zen: lurra eta haren osagaiak baliabide natural ustiagarri bihurtu ziren, eta, hortaz, pribatizagarri, merkaturagarri eta kapitalaren interesen zerbitzuko (Polanyi, 2003). Sistema kapitalistaren azken xedea aldi horretan umotu eta zabaldu zen, eta epe laburrera ahalik eta etekin ekonomikorik handiena lortzean zetzan, sistemaren epe luzerako iraunkortasuna bazter utzita, ez planetaren mugak ez esplotazio kapitalistak gizarteko gehienentzat zituen ondorioak ez baitzituzten kontuan hartzen kalkuluetan.

Ekonomia-jardueri buruzko ikusmoldea gero eta mugatuagoa izan zen, eta horrek merkataritzako ekonomia-jarduera pixkanaka arlo politikotik isolatu zuen, bai eta bizitza erreproduzitzeko oinarritzko gainerako jardueretatik ere, euskarri zituen horietatik, hain zuzen ere. Merkatu-ekonomia batek industriaren osagai guztiak barne hartu behar ditu, eskulana, lurra eta dirua barne. Baina gizon-emakumeak berak, gizarte oro eratzen dutenak, eta gizarte oro egoten den natura-ingurunea dira eskulana eta lurra, besterik ez. Osagai horiek merkatu-mekanismoan sartzen direnean, gizartearen beraren substantzia merkatuko legeen mende jartzen da” (Polanyi, 2003: 122).

² Karl Marxek “jatorrizko kapital-metaketa” deitu zion *Kapitala* laneko XXIV. kapituluari, batez ere Ameriketako kolonizazioez eta afrikar esklaboen salerosketaz ari zela. Halaber, Adam Smithek “aurretiko metaketa” deitu ziola aipatzen du.

Hala ere, XX. mendean zehar sistema horrek aberastasun-metaketa handiagoa sortzen zuen heinean —krisi sakonak eta gero eta gatazka ugariagoak falta izan ez zirela—, gero eta herrialde gehiagok lortzen zuten independentzia Mendebaldeko metropolietatik.

Hala ere, nagusitutako mezuaren muinean gizarte ororen aurrerakuntza eta garapena tradizionalak deituriko gizarte batzuetatik (nekazaritzan eta abeltzaintzan ziharduten gizarte batzuk gehienetan, eta diskurtso ofizialetan oso baliogabetuak) masa-kontsumoko gizarte batzuetara (haietan, industriak beharko zuen sektore nagusia) pasatzean zetzala zabalduz joan zen. Azken xedea Ameriketako Estatu Batuetako gerraosteko bizimodua erdiestea (kapitalismoaren urrezko urteetan, XX. mendeko 50eko eta 60ko hamarkadetan), munduko gainerakoek imitatu beharreko garapen-eredutzat idealizatuta. W.W. Rostowek 1960ko hamarkadan deskribatu zuen teoria hori, eta egungo garapen modernizatzailearen eredua izan da.

Mendebaldeak bultzaturiko eta munduko beste alde batzuetara esportaturiko teoria “modernizatzaile” horrek eta beste batzuek beti alboratu dituzte lurralde kolonizatueto jatorrizko herriek konkistaren hasieratik bertatik helarazi nahi izan zizkieten ikaskizunak.

Nahiz eta kolonizatzaileek baztertu, esplotatu eta harrapaketaz gabetutako herri askoren ahotsak iritsi ez zaizkigun, baditugu Ipar Amerikako jatorrizko herrietako buruzagiek britainiar kolonizatzaileekiko negoziatioetan egin zituzten gogoetak, bai eta Erdialdeko Amerikako eta Hego Amerikako herrien ondorengoek eginikoak ere, azken horiek ikaskizun horietako batzuk gorde baitituzte, gaur egun Sumak Kawsay eta Suma Qamaña direlako proposamenen bidez Andeetako jatorrizko herriak berreskuratzen ari direnak.

Mendebaldeko kulturak munduko gainerako aldeetan izan duen eragin suntsitzailearen gaineko kritika sendo zabaldu zen XX. mendeko 60ko hamarkadaz geroztik. Geroago, Antonio Gramsciren³ (1975)⁴ hegemonia eta mendekotasun terminoak abiapuntutzat hartzen zituen pentsamendu

³ *Hegemonia* da gizarte-maila jakin baten gaitasuna (adibidez, kapitalistena edo gizonena), mundu guztiak talde horren interesak kezka unibertsalaren ardatz moduan jo dituzan lortzeko; horrela, gizartea antolatzeke modu partikular bat onarrarazten dute jendartean. *Mendeko* hitzaren bidez azpian dagoen pertsonari deitzen dio (edo azpiko gizarte-mailei), alegia, Estatuko aginte politiko eta intelektualaren mende (haren kasuan, Italia Faxista zen) daudenei.

⁴ Gramsci, Antonio (1975): *The prison notebooks*, I., II. lib. New York: Columbia University Press.

postkolonialetako joera bat gorpuztuz joan zen. Gaur egun gero eta hedatuagoa dagoen ikuskera osatzen duena, hain zuzen.

4. Ba al da posible auzolana gaur egungo egitura kapitalistan eta patriarkalean?

Zer da ondo bizitzea? Zer daukagu ikasteko inguruko herriengandik?

Hori da gaur planteatu nahi dudana gure artean eztabaidatzeko.

Gaur egungo erroka nagusiak zenbait esparrutan koka ditzakegu.

Lehendabizi, garapen kontzeptuari dagokionez, lantzen eta birsortzen ari den fase batean aurkitzen gara. Berrikuntza nabarmenak kapitalismotik urrundu nahi dituzten proposamenetan topatzen ditugu, garapenaren eduki propioa sortu nahi dituztenen partetik, hain zuzen. Eta asko ikas dezakegu eztabaida eta praktika horietatik. Hurrengo urteotan, herrialde batzuk egiten ari diren apustu iradokitzaileak eduki berriez bete baitezake kontzeptua; guztiz beharrezkoa dena, gure iritziz. Adibide gisa hona hemen Boliviako Nazio Garapen Planaren sartu duten garapenaren definizioa.

GARAPEN NAZIO-PLANAREN HELBURUA: ONDO BIZITZEA BOLIVIA, 2006⁵

“Ondo bizitzea herrien eta komunitateen arteko elkargunea da, aniztasun eta nortasun kulturala errespetatuz. Hau da, “ondo bizitzea gure artean”. Elkarbizitza komunitarioa da, kulturen artekoa eta botere-asimetriarik gabekoa”,(..) “ezin da ondo bizi, gainerakoak txarto bizi badira”.

“Komunitatearen partaide moduan bizitzean datza, azken honen babespean. Halaber, ondo bizitzea naturarekin harmonian bizitzea esan nahi du “inguratzen gaituenarekin orekan bizitzea”. Orduan, bere esanahian “zurekin eta nirekin ondo bizitzea” sartzen da, eta hau mendebaldeko “hobeto bizitzea” kontzeptutik aldentzen da, azken hori norbanakoarena da, gainontzekoengandik bananduta, eta batzuetan besteen kontura, eta naturagandik urrunduta”.

Beste erroka nabarmena, hain zabaldua dagoen **giza eskubideen urraketari aurre egitea** da. Kontzeptu zabal honetan, atal asko sartzen dira. Alde batetik, aberastasunaren banaketa disparekoa, -gero eta handiagoa dena bai herrialdeetan bai herrialdeen artean-, murrizteko neurriak ezarri behar dira, bera baita gehienbat pobrezia sortzailea eta ondorezaren jatorria. Horren baitan, bai lurraren jabetza eskubideen banaketa bidegabea, bai lurraren haziak eta fruituak kontrolatzeko ETNek

⁵ <http://www.planificacion.gov.bo>

erakusten duten gogo asegaitza, bai tokian tokiko enpresa txikien desagerpena, edota giza-segurtasun eza topatzen ditugu funtsezko arazoan artean. Ezberdintasun guzti hauen artean, aipatzekoa da baita ere gizon eta emakumeen arteko botere-harreman bidegabeak. Funtsezkoa da botere-harreman horiek berraztertu eta aldatzeko tresnak martxan jartzea, bertan kokatzen baitira bidegabekeri askoren oinarriak, herrialde autoktono/indigena askoren diskriminazioarekin batera.

Aipatu ditugun esparru guztietan neurri berritzaileak eta bidezkoak ezartzea ezinbestekoa izango da, eta baita nazioarteko ekonomi harremanen eta migrazio fluxuen arauen esparrutan ere, beste gaietan aztertu den moduan. Eta horrek azken finean, diktadura ekonomiko batetik **demokrazia ekonomiko berri** batera (partehartzailea edota zuzena) eraikitzeke urratsak ematea eskatzen du. Eta horren defentsan, gaur egun hausnarketak eta praktika eraldatzaileak aurrera eramaten ari dira, hala nola, elikadura subiranotasunaren aldekoak, Euskal Herriko hazien sareak, finantza etikoen ingurukoa, ekonomia solidarioa, ...eta abar luze bat.

Baina, ba al da posible demokrazia ekonomikoa?

Gure esku dago gure etorkizuna eraikitzen joatea. Zentzu horretan, **autoeraketa**, hau da, pertsonen erabaki gaitasuna oinarri duen eraketa, Udaondok eta Sarasuak⁶ definitzen duten moduan, bide egokia izan daiteke gure buruaren jabe izateko. Zer uste duzu? Eztabaida dezagun!

Kredituak eta baimenak.

Egilea: [Yolanda Jubeto](#)

Data: 2011ko uztaila.

Baimena: Creative Commons [Aitortu-PartekatuBerdin 3.0](#)

Oharra: material hau interesa duen edonoren esku jartzen da Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin 3.0 lizentziarekin. Lizentzia honekin edukia kopiatu, banatu eta erakutsi ahal izango dituzu, ondorengo baldintzak beteaz:

- Edukiaren jatorrizko egilea aipatu behar duzu.
- Lanaren kopia zein banaketa askea da.
- Lan eratorriak, jatorrizko egiletza aitortzeaz gainera, baimen (lizentzia) berdina izan beharko du.

⁶ <http://www.gaur8.info/edukiak/20110128/245484/Jon-Sarasua-Autoeraketa-interesatzentzait-pertsonen-erabaki-gaitasuna-oinarri-duen-eraketa>.

Udaondo, Ainara eta Jon Sarasua (2004): *Autoeraketa ekonomikoaren kokapena egungo munduan*. Lanki. (<http://www.lanki.coop/argitalpenak/Autoeraketa%20globalitatean/euskaraz.pdf>)